Itxaropenaren Telefonoa Elkartek, dirulaguntza-eskaera aurkeztu du, 98-1-23ko datarekin. Bertan, ekitaldi honetarako, ondoko lanak garatzea pentsatu du:

- Egunean 24 orduko arreta.
- Bolondres berrietara zuzendutako prestakuntza-ikastaroak.
- Taldea, ondoko gaietan prestatzea: homosexualitatea, anorexia, Giza Inmunoeskasiaren Birusa, eta abar.
- Komunitate osora zabaldutako kurtsoen bidezko prebentzioa: autoestimua, adiskidetasun heldua, erlaxazioa, eta abar.

Aurkeztutako dokumentazioaz baliatuz, aurreko ekitaldi ekonomikoari dagokion jardueramemoriaren balorazioa, jarraipena eta arautze-ekonomikoa, eta 1998rako jarduera-proiektu berriaren balorazioa egin dira.

Ekitaldi honetarako proiektuaren aldeko txostena egin da, eta Elkarteari honen berri ahoz eman zaio, landu beharreko jarduerak planifikatzeko.

Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak, Itxaropenaren Telefonoa Elkarteari proiektuaren balorazioa egin eta honen berri eman ondoren, espediente-mota honen bideratzea daraman ohiko kudeaketa- eta ebazpen-prozedurarekin jarraituko du.

Hori guztia jakinarazi dizut bidezko ondorioetarako.

Iruñean, 1998ko martxoaren 31n

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Kontseilaria: Calixto Ayesa Dianda

Haurdunaldia nahita eteteari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunak haurdunaldia nahita eteteari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko martxoaren 17ko 19. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko apirilaren 7an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguíá

ERANTZUNA

“Askotarikoa” Parlamentuko Taldeko Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du haurdunaldia eteteari buruz. Hona Osasun Kontseilariaren erantzuna:

1. Nafarroako Gobernuak politika horrekin jarraituko al du?

Ezin da galdera hori erantzun, galdera egiten duenak aldez aurretik egindako eta ados ez gauden balorazio nabarmenari buruzkoa delako.

Dena den, galdera egin duenari adierazi behar diot, kontseilari honek abortuari buruz duen iritzi pertsonala eta politikoa albo batera utziz, Osasun Departamentuak indarrean dagoen estatu-mailako Antolamendu Juridikoa jarraitu behar duela, non abortua egiteko arrazoiak eta baldintzak ezartzen diren. Osasun Departamentu honek, eskuduntza osoz bermatuko du, Nafarroako Osasun Zerbitzuaren menpe dauden titulartasun publikoko zentroetan abortua egitearekiko kontzientzia-eragoz-penerako osasun-profesionalek duten eskubidea.

Era berean, Osasun Departamentuak, bertako profesionalak ekintza hauek egitera behartzea baztertu nahi du, bai eta abortuak egitearekin lotutako plazen deialdi zehatza egitea ere, osasuneko etika eta deontologia profesionaleko printzipio oinarritzkoenen, nola indarrean dagoen antolamendu juridikoaren aurka joateagatik.

2. Zenbat abortu egin ziren 96 eta 97 urteetan Nafarroako Aurrekontuen Kargura?

1996an, Nafarroako Aurrekontuen kargura fakturatutako eta ordaindutako haurdunaldien borondatezko etendurak 37 izan ziren, eta 1997an 36.

3. Zein autonomi erkidegotan egin ziren abortu horiek eta zein Departamentuk egin zituen horretarako egin beharreko kudeaketak?

Haurdunaldien borondatezko etendurak ondoko Elkarte Autonomoetan egin ziren: Madrilen, Euskal Autonomia Erkidegoan (Bilbo) eta Aragoian (Zaragoza).

Kudeaketak, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Oinarrizko Osasun Laguntzako Zuzendaritzaren menpe dagoen COFES Departamentuak egin zituen.

4. Zenbat ordaindu zuen Nafarroako Administrazioak eta zein aurrekontu-sailaren kargura?

Nafarroako Administrazioak ondoko kostuei egin zien aurre: 5.419.000 pezeta 1996an eta 5.323.600 pezeta 1997an.

Aurrekontu-sail hauen kargura ondoko hauek ordaindu ziren:

1996 urtea: Osasun Laguntza beste zentroetan

Proiektua: 48000

Aurrekontu-saila: 52500-2590-4112

Lerroa: 23330-5

1997. urtea: Osasun Laguntza beste zentroetan

Proiektua: 48000

Aurrekontu-saila: 52500-2590-4112

Lerroa: 22960-5

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko martxoaren 26an

Osasun Kontseilaria: Santiago Cervera Soto

Tracasako langileei bidalitako posta-komunikazioei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentuko Taldeak Tracasako langileei bidalitako posta-komunikazioei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko martxoaren 25eko 21. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko apirilaren 7an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

«Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentuko Taldeak idatziz erantzuteko galdera egin du Trabajos Catastrales, SA enpresako posta-komunikazioaren tratamenduari buruz. Hona Ekonomi eta Ogasun Kontseilariaren erantzuna:

Trabajos Catastrales, SA enpresan, osatu zen 1982az geroztik, posta-komunikazioko bi erregistro liburu daude, bat «sarrerakoa» eta bestea «irteerakoa». Liburu hauek, bulego-materialeko eredu estandarrak dira, eta bertan, enpresako posta-komunikazioari buruz ondoren adieraziko ditugun oharrak jasotzen dira:

A) «Sarrera» liburuan: bertara heldutako data, jatorria eta igorlea, dokumentu-mota eta edukiaren laburpen txikia.

B) «Irteera» liburuan: bertatik ateratako data, helburua eta nori zuzendua, dokumentu-mota, eta edukiaren laburpen txikia.

Aipatutako liburu bakoitzaren eduki-orriko kopia eta azaleko kopia erantsiko dira. 1, 2, 3 eta 4 zenbakidun dokumentuak.

Departamentu Komertzialak era berean, merkataritzako eskaintzen kontrolerako beste liburua dauka.

Posta-komunikazioko erregistro liburu horiek egoteko eta mantentzeko arrazoiak, administrazioaren antolaketa- eta eraginkortasun-arlokoak dira. Antolaketa hau nahiko normala da Administrazio Publikoan eta gure herriko enpresa gehienetan. Enpresako posta-komunikazioari buruzko arauak dira, hau baita jasotzen dena; enpresara eta bertako departamentuetara zuzendutako posta-komunikazioa da, eta ez ordea partikularrei edo sindikatuen inguruko posta-komunikazioa.

Mota honetako postak ez ditu inolaz ere arau horiek jarraitu behar.

Posta-komunikazioen sarrera- eta irteera-erregistroak, eta gutuna eta bere edukia, gutunak jaso diren datarekin zigilua jartzeko ohiturek, enpresako jardueraren kontrolean laguntzeko funtzioa dute. Erregistro liburu hauek, dagokien departamentuek kontsultatzen dituzte, bezeroek adieraz ditzaketen datei buruz, edo ordainagiriak itzultzeko epeei edo hornitzaileen fakturazioari buruz, edo dokumentazioaren bat galtzen denean bezalako zalantza- edo eztabaida-kasuetan; enpresaren jarduerarako erregistro-liburu horiek gordetzea beharrezkoa eta positiboa iruditzen zaigu.

Honen inguruan azpimarratu behar da, Trabajos Catastrales, SA enpresak gaur egun, 200 langile inguruko plantila duela, horietatik 170 Iruñean, 1.800 milioi pezeta inguruko jarduera-bolumenarekin. Enpresako kapitalaren %100 Nafarroako Gobernuarena izanik, bere jardueraren %99 inguru sektore publikoarekin loturik garatzen du. Enpresarentzako derrigorrezkoa da epeak betetzea eta errespetatzea; horren jarraipena egiteko, aipatutako erregistroak ere oso erabilgarriak dira.

Posta-komunikazioaren sarreran eta irteeran administrazio-funtzionamenduko arau hauek, enpresako pertsonal guztiak ezagutzen du, eta 1991n arau horiei buruzko zirkularra bidali zen. Zirkular honen kopia, ondoren eranskin gisa azaltzen da. 5 zenbakidun dokumentua.

Adierazi bezala, bertan argi geratu zen enpresan ez zela langileen posta-komunikazio pribatuarik jaso behar, hirugarren puntuan ondoko hau adierazten zen eta: «edozein arrazoirengatik langileren batek posta-komunikazio pribatua jaso nahi badu, bere etxean izan beharko da».

Horregatik, gutun bat enpresara heltzerakoan, ondoko pausoak jarraitzen ziren: ireki, igorlea zehaztu, edukiaren jatorria eta gutxieneko definizioa egin, dokumentuari zigilua jarri, data eta sarrera-zenbakia adieraziz, liburuan idatzi eta administrazio-departamentura bidali, bertatik dagokion lekura banatzeko.

Jakina da, gutuna enpresari zuzenduta ez dagoela konturatzen diren bakoitzean, zuzenduta dagoen pertsonari eman zaiola.

1991 urtean, Enpresa Batzordearen posta-komunikazioak arau hauek saihestearren, Traba-

jos Catastrales, SA enpresak posta-kutxatila irekitzea erabaki zuen Enpresa Batzordeak bakarrik erabili ahal izateko, 2.178 zenbakidun posta-kutxatila. 1992ko martxoan irekin zen, 6 zenbakidun Dokumentu gisa eskainitako ordezkagiriaren kopian egiazta daitekeen bezala.

Data horretatik gaur egunera arte, ez da pertsonen edo sindikatuen kezarik egon, ez eta posta-komunikazioaren tratamenduari buruzko langileen edo Enpresa Batzordearen salaketarik ere.

Enpresa Batzordeari 1992an irekitako posta-kutxatilaren inguruan Postetxean beharrezko galderak egin ondoren, jakin izan da kutxatila hori baliogabetu egin zela, bertan sartutako berritze-oharrei buruzko erantzunik jaso ez zelako. Enpresak ez zituen ohar horien berri inoiz izan.

Postetxeak ere adierazi zuen, kutxatileko giltza itzuli ezenez, fidantza galdu egin zela, eta berria nahi izanez gero, eskatu egin beharko zutela.

Aurtengo martxoaren 10ean, Enpresa Batzordearentzako posta-kutxatila berria eskatu zen.

Posta-kutxatila berria 2.132 zenbakia da. "Kutxatila-eskubidea" delakoaren ordezkagiria eta giltza, Enpresa Batzordeko Idazkaria zen Alfredo Sainz Ortuvia jaunari eman zitzaizkion 1998ko martxoaren 16an.

Komunikazioen sekretuaren bermeko eskubide konstituzionalaren errespetua gordetzeko eta bermatzeko asmoz, bai eta eskubide hau sindikatu-ekintzaren esparruan erabiltzeko ere, Trabajos Catastrales, SA enpresan jaso daitezkeen posta-komunikazio pertsonalen eta sindikatukoaren, eta enpresaren jardueran ohikoak diren gutunen artean bereizketa egiteko ahalegina egingen da.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko martxoaren 27an

Ekonomi eta Ogasun Kontseilaria: José María Aracama Yoldi

(Oharra: aipatu agiriak Parlamentario jaunandeen esku daude Biltzarreko Zerbitzu Orokorreko bulegoan).

Hurrengo eskolaratze kanpainako leloei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, «Ezker Abertzalea» Parlamentuko Taldeak hurrengo eskolaratze kanpainako leloei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko martxoaren 17ko 19. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko apirilaren 14an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Ezker Abertzalea Parlamentuko Taldeak idatziz erantzuteko galdera egin du hurrengo eskolaratze-kanpainarako lemei buruz. Hona Hezkuntza eta Kultura Kontseilariaren erantzuna:

1.- Lema nagusia, joan den urtekoa da: "Irakaskuntza Publikoa. Kalitatezko aukera, etorkizuneko bidea". "Ikastetxea aukeratzeko askatasuna" delako eskubide konstituzionala onartzetik abiatuz,

irakaskuntza publikoa, "Eskaintzeko asko" duen "Kalitatezko irakaskuntza" gisa aurkeztu da, "Gaztelania/euskara aukera linguistikoko ereduak" delakoen eskaintza azpimarratuz.

2.- Kanpainaren kostua 6.161.471 pezetakoa da. Bertan, liburuskak eta kartelak editatzea, prentsan, irratan eta telebistan iragarkiak egitea, eta hezkuntza-sisteman sartzeko adina duten haurren familiei informazio pertsonalizatua bidaltzea sartuko lirateke.

3 eta 4.- Kanpaina honen bidez, Hezkuntza eta Kultura Departamentuak irakaskuntza publikoa sustatzen du. Bertan, Komunitateko ikastetxe publikoetan eskainitako eredu linguistiko desberdinak sartuko lirateke.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko apirilaren 6an

Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

Pekinen egitekoa den Nafarroako Enpresarien Erakusketa Iraunkorrari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Luis Gerardo López Eslava Foru Parlamentario jaunak Pekinen egitekoa den Nafarroako Enpresarien Erakusketa Iraunkorrari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko martxoaren 25eko 21. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitartu zen.

Iruñean, 1998ko apirilaren 16an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Parlamentuko Taldeko Luis Gerardo López Eslava Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Pekinen egitekoa den Nafarroako Enpresen Erakusketa Iraunkorrari buruz. Hona Ramón Bultó Llevat Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilariaren erantzuna:

1. Zergatik bidali zizkien Nafarroako Gobernuak enpresei eta iritzi publikoari Pekingo Enpresen Erakustaldiari buruzko publizitatea eta argibideak emateko gutunak?

Nafarroako Gobernuak enpresei eta iritzi publikoari Pekingo Enpresen Erakusketari buruzko publizitatea eta argibideak emateko gutunak banatu zizkien, haientzako proiektu interesgarria zelakoan. Izan ere, Txina azaleratzen ari den, eta nola edo hala prospektatu, aztertu eta landu beharreko merkatua da. Urte beteko katalogo bidezko erakusketa iraunkorra zen, ez azoka bat. Nafar produktuak Txinako merkatuan sartzeko aukera zen, bezero potentzialak bilatuz.

2. Zergatik iragarri zion Nafarroako Gobernuak iritzi publikoari zein enpresak emana zuten izena Pekingo Erakustaldian parte hartzeko.

Bertara joateko izena eman zuten enpresen izenak jendeari ezagutzera ematea, ez zen Nafar Gobernuaren ekimena izan; bertako prentsak, enpresa hauen izenak ezagutu nahi zituen, eta horren aurkako arrazoirik ikusi ez genuenez, izen horiek eskaini genizkien.

3. Zergatik luzatu zuen Nafarroako Gobernuak Pekingo Enpresen Erakustaldira joateko bidaiaren irteera eguna?

Atzeratzearen arrazoi nagusiak: proiektuaren arrakastaren ehuneko ehun ziurtaturik ez edukitzea, erakusketa-zonan zenbait obra garrantzitsu hastea eta erakusketaren kokapenari buruzko aurkako txostenen bat.

4. Zergatik Nafarroako Gobernuak aurkeztu zuen alternatiba gisa Merkataritza Ganbarak antolatutako bidaia, alegia Nafarroako Gobernuak berak %75ean diruz lagundutakoa?

Nafarroako Gobernuak, merkatu txinarra garrantzitsua dela pentsatzen jarraitzen du, eta Internazionalizazio Planaren barruan, merkatu honi garrantzi berezia eskaintzen dio, eta bere eskuetan dauden aukera guztiak erabiliko ditu Nafarroako enpresa merkatu horretan sartzen laguntzeko. Era honetara, enpresei, egoeraren berri adierazteko deialdia egin eta hurrengo egunean, 1998ko otsailaren 18an, zenbait formulatan parte hartzeko idatzia bidali zien. Idatziak honela dio:

1.a) Negozio Sustatzailearen irudia sortu Txinan, hau da, merkataritza-munduan esperientzia handiko profesionala bilatu, Nafarroako enpresei Txinako merkatuan irekitze-zerbitzuak errazteko, produktu eta zerbitzu zehatzei buruz planteatutako diren eskaerak kontuan hartuz. Txinako merkatuan sartzeko, Nafarroako enpresekin —esportatzaile berriak izan ala ez— batera lan egiteko helburuarekin.

Nahi duen enpresak, Nafarroako Ganbararekin, luza daitekeen sei hilabeteko kontratua formalizatuko du. Hilean 100.000 pezetako kuota izanen dute, %50a Nafarroako Gobernuak ordainduz.

b) Merkatu Ikerketako azterketa pertsonalizatua. Nafarroako Gobernuak, Txinan, internazionalizazio gogoeta estrategikoko analisia egitea bultzatu nahi du.

Kapitulu honetan, enpresarako bakarrik izanen den merkatu-ikerketako azterketa egiteko kanpoko aholkulari espezializatua kontratatzearen ondoriozko gastuak sartu dira.

Nafarroako Gobernuak, Internazionalizazio Planean ezarritako diren muga maximoentzako dirulaguntzak emanen ditu, nahiz portzentaia- nahiz dirulaguntza-arloetan.

2. Nazioarteko azoketan ICEX delakoarekin batera lan egin, Espainiako pabilioi ofizialarekin parte hartuz. Enpresa bakoitzak stand bakoitzean 12 m²-ko espazio minimoa dauka. Elikagaiak, kontsumo-ondasunak, industriako makinak, teknologia, zerbitzuak eta abarren sektore-planak balortuko dituzte batez ere.

Nafarroako Gobernua, ICEX delakoak, nazioarteko azoketan parte hartzeagatik eskainitako dirulaguntzak osatzen aztertzen ari da.

3. Nafarroako Merkataritza eta Industri Ganbarak, aurtengo bigarren seihilekoan Txinara merkataritza-misioko bidaia antolatuko du. Misio horrek lehentasuna izanen du, eta desplazamendu- eta ostatu-kontzeptu gisa %75ean ordainduko dute, Internazionalizazio Planean ezarriko duten muga maximoarekin.

Ekintza hauek lehentasuna izanen dute, duela gutxi aurkeztutako 1998ko Nafarroako Enpresaren Internazionalizazio Planean.

5. Nafarroako Gobernuak aztertuta al zituen Pekingo Erakusketaldiaren ezaugarriak, iritzi publikoari agertu baino lehen?

Proiektua berez, sakon eta zabal aztertu zuten, eta martxan jartzeko aurreikusitako data baino lehentxeago, txosten eta azterketa guztiak aldekoak ziren. Hala ere, egun batzuk lehenago, oso positiboak ez ziren zenbait informazio jaso genituen. Informazio hauen ondorioz, proiektua berriz aztertu eta azkenean hartutako erabakia hartu genuen zorionez.

6. Proiektuari berrekinen ote zaio, izan ere Kontseilariak hilabeteko epeaz hitz egiten baitzuen?

Etorkizunean proiektuari berriz heldu ahal izanen zaio, beti ere enpresarientzako arrakasta lortzeko ehuneko ehun ziurtasuna badago. Oraingoz, merkatu txinarrean ekintza gehiago sustatuko dituzte, eta, ICEX delakoarekin batera, Shanghaiko azoketan hartuko dute parte.

– Food & Hotel Chine, irailaren 1-4. Elikadura eta Edariak.

– Furniture Chine, irailaren 14-17. Altzariak.

Lehenengorako, nekazaritzako elikagaien arloko Nafarroako 55 enprekin jarri dira harremanetan; altzari-azokaren kasuan berriz, 14 enprekin. ICEX delakoak 275.000 pezeta inguruko dirulaguntza emanen die, eta Nafarroako Gobernuak, standaren kostuaren %50eko dirulaguntza emanen die (38.000 pta/m²).

Gainera, 1998ko martxoaren 31n, eta Merkataritza Ganbararekin batera, Txinari buruzko jardunaldia egin dute, izen eta esperientzia handiko txostengileekin.

Datorren udazkenean, eta Merkataritza Ganbararekin batera, arlo anitzeko merkataritza-misioa antolatuko da Txinara.

Gaur egun Departamentuak, negozio-sustatzailearen irudia sortu nahi du Txinan. Kasu honean, enpresa-kuota %75ean ordainduko da ohiko %50ean izan beharrean.

Iruñean, 1998ko apirilaren 8an

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilaria: Ramón Bultó Llevat

Ezkaba kanpineko errentamendu-kontratuari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentuko Taldeak Ezkaba kanpineko errentamendu-kontratuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko martxoaren 25eko 21. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko apirilaren 16an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

«Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentuko Taldeak idatziz erantzuteko galdera egin du Ezkaba kanpineko errentamendu-kontratuari buruz. Hona Ramón Bultó Llevat Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilari jaunaren erantzuna:

Martxoaren 27ko 76/1995 Foru Dekretuan jasotako eta indarrean dagoen Kanpinen Arautegiaren arabera, lurzatiak ezin dira urte bete baino gehiagorako errentan hartu. Arau hau, Nafarroan aplikatu diren kanpinei buruzko araudietan oinarritzen da.

Bere garaian Sedena, S.L. enpresarekin sinatutako kontratuan ez da beraz, urte bete baino gehiagoko errentamendua baimentzen duen klausularik agertzen, kudeaketa egiterakoan, kanpinen arloko turismoko arautegia errespetatuko litzatekeela hitzartu ondoren.

Enpresa esleipendunak, hitzartutako guztia bete duenez, ezin zaio erantzukizunik eskatu.

Iruñean, 1998ko apirilaren 8an

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilaria: Ramón Bultó Llevat

Tuterako udalaren dantza taldearentzako laguntzei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, M^a Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentario andreak Tuterako udalaren dantza taldearentzako laguntzei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko martxoaren 25eko 21. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko apirilaren 16an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

«Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentuko Taldeko Hezkuntza eta Kultura Bozeramailea den M^a Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentario andreak idatziz erantzuteko galdera egin du Tuterako Udalaren Dantza Taldeari

buruz. Hona Hezkuntza eta Kultura Kontseilariaren erantzuna:

1.- Tuterako Udalaren Dantza Taldeak, otsailaren 17ko 40/1998 Foru Agindu bidez onartutako «Kultur trukeko programetan eta bidaietan parte hatzeko laguntzak» izeneko deialdian hartu deza ke parte.

2.- Aurreko galderan aipatutako deialdi berean parte hartu ahal izanen du, galderan aipatutako ekitaldietan parte hartzeak kultur trukeko programen bati erantzunez gero.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko apirilaren 7an

Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

Nafarroako Jaialdien programazioari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, M^a Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentario andreak Nafarroako Jaialdien programazioari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko martxoaren 25eko 21. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko apirilaren 16an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentario andreak idatziz erantzuteko galdera egin du 1998ko Nafarroako Jaialdien programazioari buruz. Hona Hezkuntza eta Kultura Kontseilariaren erantzuna:

1.- 1997an egindako azken edizioeko programazioan jarraitutako irizpide berak jarraituko dira.

2.- Nafarroako Jaialdien programazioa, eta Fernando Remacharen Jaiotzaren Mendeurrena ospatzeko ekintzen programazioa independenteak dira. Remacha omentzeko ekitaldiek ohizkanpoko programa osatzen dute.

Remacharen Mendeurrena ospatzeko aurreikusitako jardueren artean, Tuteran ondoko ekitaldiak egingen dituzte: abesbatzen kontzertuak, ganbara-musikako, musika sinfonikoko, eta sinfonia-abiesbatzako kontzertuak, Remachari eta 27ko Belaunaldiari buruzko erakusketa, eta mendeurrenaren amaiera-ekitaldia. Bertan, Remachak pianorako eta koral harmonizaturako egindako ganbara-musikaren publikazioak, eta bere ganbara-musikaren grabazioa eta CD edizioa aurkeztuko dituzte.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko apirilaren 7an

Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

Zentro publikoetan “Zentroko Proiektu Linguistikoa”ri buruz informazio-hitzaldiak emateari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Inmaculada Matías Angulo Foru Parlamentario andreak zentro publikoetan “Zentroko Proiektu Linguistikoa”ri buruz informazio-hitzaldiak emateari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko martxoaren 25eko 21. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko apirilaren 16an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Inmaculada Matías Angulo Foru Parlamentario andreak idatziz erantzuteko galdera egin du zen-

tro publikoetan “Zentroko Proiektu Linguistikoa” delakoari buruzko informazio-hitzaldiak emateari buruz. Hona Hezkuntza eta Kultura Kontseilariaren erantzuna:

1.- Larraintzarko ZP-DBHI delakoan, “Zentroko Proiektu Linguistikoa” delakoari buruzko hitzaldia eman zen Prestakuntza Modulu baten barruan, sei ekitalditan banaturik.

Irakasleei eta eskola-komunitateari emandako informazioan, ondoko hau adierazten zen: “lehenengo saioa informatzeko izanen da, eta irakasleei eta hezkuntza-komunitateko ordezkari zuzenduko zaie”. Txostengileak, Ricardo Ederra eta Andoni Txibite izanen dira.

Ekitaldi hau, otsailaren 11n, arratsaldeko ordu batean, Zentroko liburutegian egin zen, eta bertara ondoko hauek azaldu ziren: ikasle bat, A eredu-

ko hiru ama, D ereduko hiru ama eta hamazazpi irakasle.

2.- Nafarroako Gobernura, Larraintzako "Irurita Gotzaia" gurasoen elkartearen kexa heldu zen, ekitaldian adierazitakoarekin bat ez zetozela eta haserre zeudela adieraziz. Era berean, modulua berehala birplanteatzea eta txostengileak kargutik kentzea eskatzen zuten.

Informazioa bildu ondoren, jarduera horren bidez zentroko Zuzendaritza Taldeak bilatzen zuen zuzendaritza-izpiritua azpimarratu dute. Era honetara, hezkuntza-estamentu desberdinei egindako deialdian ondoko hau irakur daiteke: "Zuzendaritza-taldearen iritiz, oso interesgarria da Hezkuntza Komunitatearen adostasun eta partaidetza handiena lortzea, Proiektu hau egitera eramanen gaituzten azterketak burutzerakoan eta erabakiak hartzerakoan".

Arloen eta Zentroko estamentuen arabera, jarduerari buruzko iritziak desberdinak direnez, eta desberdintasun hauek, Proiektu Linguistikoa lantzeko beharrezko adostasunetik eta partaidetzatik urruntzen diren polemikak eta desadostasunak eragin ditzaketenez, Nafarroako Gobernuak, modulu hori behin-behineko baliogabetzea pentsatu du, eman litezkeen erantzukizunen erreklamazioa oztopatu gabe.

Hori guztia jakinarazi nahi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko apirilaren 7an

Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

Mendillorri bereizketa espedienteari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentario jaunak Mendillorri bereizketa espedienteari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko martxoaren 25eko 21. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko apirilaren 16an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari taldeko Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Mendillorri bereizketa-espedienteari buruz. Hona Toki Administrazio Kontseilariaren erantzuna:

1.- Zein da Mendillorri Egues dermiotik bereizi eta Iruñeko dermiora eransteko espedientearen egoera?

Aurtengo apirilaren 22rako deitu den Lurralde Mugaketako Batzordeak, espediente horri buruzko irizpena eman behar du. Ondoren, Estatu Kontseilura bidaliko dute organo horrek bere txostena egiteko, eta azkenik, Foru Dekretuko proiektua Nafarroako Gobernuari igorriko diote, era honetara prozedura bukatutzat emateko.

2.- Noizko dago aurreikusia espedientea behin-betikoz ebaztea?

Ezin da espedientearen behin-betiko ebazpenaren data zehaztu, Estatu Kontseiluaren jarduketara gertatuko den epearen menpe dagoelako.

Hala ere, espedientea, datorren uztailaren aurretik ebatziko denaren itxaropena dugu.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko apirilaren 14an

Toki Administrazio Kontseilaria: Rafael Gurrea Induráin

Basa fauna eta haren habitatak babestu eta kudeatzeari buruzko martxoaren 5eko 2/1993 Foru Legea ez betetzeagatiko zehapenari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Ion Iñaki Erro Armendáriz Foru Parlamentario jaunak basa fauna eta haren habitatak babestu eta kudeatzeari buruzko martxoaren 5eko 2/1993 Foru Legea ez betetzeagatiko zehapenari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko martxoaren 31ko 22. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko apirilaren 20an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra” Parlamentuko Taldeko Ion Iñaki Erro Armendariz Foru Parlamentario jaunak galdera egin du Carlos Enrique Chivite Lopez jauna zehatzen duen 1310/1997 Foru Aginduari buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna:

1.- Zer dela-eta zehatu du Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariak arau-hauste arin bezala (50.001 pezetako zehapena) Basa fauna eta haren habitatak babestu eta kudeatzeari buruzko martxoaren 5eko 2/1993 Foru Legeak 112.7 artikuluan larri bezala tipifikatzen den zehapena ekartzen duen arau-haustea, kontuan izanik salaturiko pertsonak administrazio-baimen espresurik eduki gabe espezie aloktonoak (granjako eperrak) ekarri, hazi, lekualdatu eta askatu dituela, bai natur ingurunean sartuz, bai ustiapen ekonomiko edo erabilera zientifikorako ekarri?

158/1997 zenbakidun espediente zehatzailea ez da amaitutzat eman arau-hauste arinagatiko zehapenarekin, galderak adierazten duen bezala:

Adierazitako espedientearen kargu-pleguak ondokoa adierazten du urratutako aginduari dagokionez: “ehizaki biziak Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren baimenik gabe edo kasu bakoitzerako ematen diren arauak bete gabe askatzea larritzat tipifikatutako arau-haustea da Basa fauna eta haren habitatak Babestu eta Kudeatzeari buruzko martxoaren 5eko 2/1993 Foru Legeko 117.5 artiku-

luan. Ehizarekin zerikusia duten hainbat alderdi arautzen dituen abenduaren 27ko 390/1993 Foru Dekretuko 18. artikulua basa-eperrak eta faisaiak bario barrutietan galeper japoniarrak eta faisaiak baino ezin direla zabaldu ezartzen du”.

Horrenbestez, tipifikazioa hutsegite larrikoa da, hitzez hitz ondokoa dioen 117.5 artikulua araber:

“Ondokoak dira arau-hauste larriak:

5.- Ehizaki biziak, bai eta hegazti zinegetikoen arrautzak Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren baimenik gabe edo kasu bakoitzerako ematen diren arauak bete gabe inportatu, esportatu, lekualdatu edo askatzea”.

Eta horrenbestez, ezarritako zehapena martxoaren 5eko 2/1993 Foru Legeak berak 122 b) artikuluan arau-hauste larrietarako finkatzen duenari egokitzen zaio. (“Arau-hauste larriek 50.001 eta 250.000 pezeta arteko zehapena izanen dute”).

2.- Eginiko arau-haustea larria dela ikusirik, aipaturiko zehapena aldatzeko asmorik ba al du?

Ez da arau-hauste larriak hutsegite arin bezala zehatu eta, horrenbestez, ez dago ezarritako zehapena aldatzeko arrazoirik, dagokion prozedura zehatzailearen ondoren eta indarrean dagoen araudiaren arabera.

Okerra espezie autoktono eta aloktonoen arteko nahasteak eta espezie hauek basa-faunaren kontzeptuarekiko duten erlazioak eragindakoa izan daiteke.

Espezie autoktono eta aloktonoak bereizten dituen ondokoa da; alde batetik, Nafarroakoak berezkoak, bertara egokitutakoak, bertan ugaltzen direnak edo Nafarroako berezko natur inguruneetik datozenak izatea, eta beste aldetik, ordea, kanpotik datozen inguruneetik eta bertara egokitu gabe etorriak izatea.

Bestalde, basa-faunako espezieak natur ingurunean bizi direnak dira, beren ohiko habitatetan.

Basa-fauna honen aurrean, fauna autoktonoaren zati izanda, granjetan edo arrain-haztegiatan hazten diren espezieak ditugu. Arrazoi horregatik ez diote fauna autoktonoa izateari uzten, espezie

genetiko berak baitira. Hori dela-eta, galderan granjako eperrak espezie aloktonoak direla adierazten duen kontsiderazioak ez du inolako oinarririk, eta horrek eraginen zuen ziurrenik espediente zehatzailean eginiko arau-hausteagatiko tipifikazioak bestelakoa izan behar zuela uste izateak.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko apirilaren 3an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

<p>HARPIDETZAREN PREZIOA</p> <p>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</p> <p>Urte bat 6.000 pta.</p> <p>Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa 140 » .</p> <p>Bilkura Egunkariaren aleko prezioa 175 » .</p>	<p>IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</p> <p>NAFARROAKO PARLAMENTUA</p> <p>«Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala»</p> <p>Arrieta 12, 3</p> <p>31002 IRUÑA</p>
--	---